

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Pertsona partikularrentzako laguntzak, COVID-19ren osasun krisia dela eta

BDNS (identifikatzailea): 504748

Iruña Okako udalbatzaren 2020ko apirilaren 30eko Erabakiaren laburpena, zeinaren bidez deialdi publikoa egiten baita, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko deklaratu den alarma egoeraren ondorioz partikularrei sortutako premia espezifikoak arintzeko laguntzena.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorritik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan dago ikusgai: <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>:

Lehenengoa. Onuradunak

Laguntza eskura dezakete pertsona fisikoek (bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideek), baldin eta jarraian jasotako betekizunak betetzen badituzte.

Eskaera bizikidetzaren unitateko kide bakarrak egin behar du, zeinak honako betekizun hauek bete beharko baititu:

1. COVID-19 dela eta hartu diren neurrien ondorioz langabezian edo aldi baterako enplegu erregulazioko espediente baten barruan egotea, edo diru sarrerak galtzea alarma egoeraren ondorioz.
2. Iruña Okan erroldatuta egotea eta udalerrian bizitzea benetan, 2020ko urtarrilaren 1a baino lehenagotik.
3. Adinduna izatea edo legez emantzipatuta egotea.
4. Alarma egoera hasi zenetik, familia unitatearen sarrera garbiak (edozein kontzeptu dela eta jasoak) ez izatea hauek baino handiagoak:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	OROKORRA – EURO/HIL, GEHIENEZ ERE
1	1.000,00 euro
2	1.250,00 euro
3 edo gehiago	1.500,00 euro

5. Egunean izatea Iruña Okako Udalarekiko zerga betebeharrak (ofizioz egiaztatuko da).

6. Laguntza ematearen aldeko txosten arrazoitua edukitzea, Udaleko Gizarte Zerbitzuek egina. Laguntza jasotzen jarraitu ahalko dela bermatzeko, premia izaten jarraitzen duela egiaztatu beharko da, eta hori esplizituki jasota geratuko da laguntza emateko hasierako proposamenarekin batera joango den jarraipenaren txosten sozialaren bidez.

Bigarrena. Xedea

Oinarri hauen helburua da partikularrei laguntzak ematea, COVID-19k eragindako osasun krisiaren egoera kudeatzeko deklaratu den alarma egoeraren ondorioz sortutako premia espezifikoak arintzeko.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Iruña Okako udalbatzak 2020ko apirilaren 30eko Erabakiaren bidez onetsitakoak. Udalaren web orrian eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

230.480.000 aurrekontu partidaren kontura:

Artikulu honetan ezarritako aldi osoan emango den laguntzaren gehieneko zenbatekoa ezingo da izan taulan jasotakoa baino gehiago, bizikidetza unitate onuradun bakoitzeko:

FAMILIA UNITATEKO KIDEAK	OROKORRA – EURO/HIL, GEHIENEZ ERE
1	1.200,00 euro
2	1.800,00 euro
3 edo gehiago	2.200,00 euro

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan Gobernuak deklaraturako alarma egoeraren hasieratik alarma egoera amaitu eta hurrengo bi hilabetera arteko aldiari bizikidetza unitateak eskatzen dituen oinarriko premiak estaltzeko emango da laguntza, araudi honen 2. artikuluan adierazitako aurrekontuaren mugara arte.

Emango diren zenbatekoak:

Kide bakarreko bizikidetza unitatea: 120,00 euro hilean.

Bi kideko bizikidetza unitatea: 180,00 euro hilean.

Hiru kideko edo gehiagoko bizikidetza unitatea: 220,00 euro hilean.

Eman beharreko zenbatekoa kalkulatzeko, egun naturalak hartuko dira kontuan.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea oinarrien deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratu eta biharamu-nean hasiko da, eta 2020ko maiatzaren 31n amaituko da. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira izapidetuko, eskaeraren edukian sartu gabe, administrazio erabakiaren bidez.

Iruña Oka, 2020ko apirilaren 30a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ